

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 16

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

abenduak 18

URTEKO AZKEN ALBISTEAK

Dakizuenez, atzo, abenduaren 16an, Batzar Parekidea izan genuen Eibarren. Bileran hainbat gai tratatu genituen, baina gauza gutxi geratu ziren argi.

1. LEP-a egutegia aldatu bada ere, eta behin-betiko osoa eduki ez arren, momentuz daukaguna hurrengoa da:

- Oposizio fasearen emaitzak argitaratze data: 2009ko urtarrilaren 9an
- Erreklamazio epea (10 lanegun): 2009ko urtarrilaren 12tik - urtarrilaren 23ra arte.

Erreklamazioak, posta arruntaz egin ahal badira ere, onena Partzuergora bertara eramatea da, eta edonork eraman ahal du. Bertara joanda zein postaz egin, bi kopia eraman behar dira, bat konpultsatu ahal izateko eta beste bat gordetzeko, sarrera eman denaren froga gisa.

2. Ibiltarien lan poltsa. Jadanik jarri da martxan, Bizkaian 3, Gipuzkoan beste 3, eta Araban 2 gehiago. STEE-EILASen kezkatuta gaude, langile kopuru honekin nahikoa ez dela pentsatzen dugulako, baita, dauden ordezkapenak betetzeko zonaldeak zabalegiak direla ere. Dena den, aurten froga egingo da eta gure zalantzak egiaztatu ahal izateko datuak ikusi beharko dira.

3. Koordinatzaileen ordainsaria. Langile hauentzako pizgarria eskatzen jarraitzen dugu, eta nahiz eta Partzuergoa ados ez egon, erreklamazioarekin aurrera jarraituko dugu.

4. Zerrendak. Hezitzaile ordezkoen faltari dagokionez, egoera ez dela asko aldatu adierazi ziguten. STEE-EILASen ustez, arazo hau konpontzeko, gure lan baldintzak hobetu beharko lirateke, eta Partzuergoan egindako zerbitzuak hezkuntzako zerrendetan kontuan hartzea lagungarria izango litzateke.

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 16

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

abenduak 18

5. Formakuntza. Kurtso honetan, hainbat hezitzaile eginda zuten mintegian apuntatzera behartuta egon dira. Hau da, Hezkuntza Proiektuarenean hain zuzen, ikasturte honetan dauden haurreskolan proiektua egin gabe dagoelako. STEE-EILASen pentsatzen dugu hau batere aberasgarria ez dela eta horrela jakinarazi diegu.

Gure proposamena; proiektuen formakuntza eta hauen garapena banatzea.

Hala ere, gai asko geratu ziren beste bilera batean tratatzeko:

- Haurreskola batean baino gehiagotan lanean dauden hezitzaileentzat araudia egin beharra.
- Genero berdintasunaren batzordearen eraketa.
- Arreta zuzenaren murrizketa aurrera eramateko batzordearen osaketa.
- Lekualdatze lehiaketaren arautegia.

Zalantzaren bat izanez gero, badakizue non gauden.

Gabonak gozatu!